

## Maite Larburu • Musikaria

Biolin jotzailea da ofizioz, antzinako musikan espezializatua. Bere ahotssez eta gitarrak lagundurik, hamabi kantu grabatu ditu orain.

## «Biolinarekin teknika bat ikasi nuen; ahotsarekin ez nuen nahi hori»

Gorka Erostarbe Hernani

Biolina du musika tresna kuttuna Maite Larburuk (Hernani, 1979). Hari itsatsita pasatu ditu bere bizitzako urterik gehienak. Hezkuntza klasikoa jaso zuen, eta ikasketa akademikoa egin zuen Amsterdamen. Nicanor Zabaleta beka irabazi zuen 2004an. Antzinako musikan espezializatu zen, XVI. eta XVII. mendeetakoan, hain zuzen ere, eta freelance modura aritzen da egun hainbat eta hainbat orkestra eta ganbera musikako taldeetan, mundu guztian barrena.

Biolina lagun eta bidaide. Baina, oraingoan, pixka baterako bada ere, atsedean eman dio, banandu egin da. Gitarraren laguntza eta ahots hutsez egindako kantuak grabatzen aritu da aurreko astean, jaiolaketik hurbil, Peio Gorrotxategi soinu teknikariak Hernaniko Ereñozu auzoan duen estudioan. Sei egun behar izan ditu hamabi kantu grabatzeko, eta Josh Cheatham musikari estatubatuarra (Seattle, 1974) izan du lagun soil. Hura ere antzinako musikan espezializatua, kontrabaxuan eta biola da gaban aditua. Baina umetatik gitarra ere jotzen du, Larburuk umetatik kantatzea gustuko duen antzeratsu. Ofizioak eraginda elkar ezagutu zuten; bizilagunak dira Amsterdamen egun. Eta gitarra eta ahotssez hainbat kontzertu ematen hasi ziren areto txikietan. «Kantu bat bidali nion Joshi duela pare bat urte, moldaketa egin zuen, eta jolas moduan hasi genuen kontzertuak emate-arena», akordatzan da Larburu.

Jendearen harrera ona ikusita, eta kontzertuen amaieran diskoen bat ba ote zuten jendea eske etortzen zitzaizela ikusita, erabaki dute bi urteotan egindako abestiak grabatzea. Kantuon estiloa definitzea zaila egiten zaio Larbururi berari. «Joshek esaten du eklektikoa dela. Ezin dut esan guzere antzinako musikarekiko joera

erabat alboratua utzi dugunik, horretatik ere egongo baita, baina oso zabala da. Kantu bakoitza mundu bat da. Badaude *jazzeroak*, *poperoak*, *Indiako* uki-turen bat duena... Denetarik dago apur bat, eta oso era intuitiboan ateratakoak dira. Musika klasikoaren munduan dauzkagun loturak alde batera utzi eta ateratzen denari bide egitea izan da kontua».

Umetatik du gustuko kantatzea Larburuk. «Etxean asko abesten genuen». Amsterdamen musika ikasle zela, izena eman zuen jazz kantuen departamentuan. «Urtebetera, utzi egin nuen, konturatu nintzelako berriz ere akademizismotik pasatu behar nuela, eta ez neukan gogorik. Biolinarekin teknika jakin bat ikasi nuen, baina ahotsarekin ez nuen nahi. Ez daukat inor bezala kantatu beharrik. Ni naiz. Hori gustatzen zait. Musika klasikoan beti lortu behar dugu soinu jakin bat, beti daukagu arau mordoa...». Ez dauka inork bezala kantatu beharrik, baina badu bere musika *background*-a: «Denetik entzun dut pixka bat. Jazz pitin bat, popa ere bai, 60 eta 70eko musika, Beatles, Rolling Stones, Neil Young, Johnny Cash eta Bob Marley fabo-

**«Bidaian bizi gara etengabe; beti etxetik kanpo, eta beti etxea faltan»**

**«Gai nagusietako bat da ezinezkoaren bilaketa; horrek asko obsesionatzen nau»**

rito handia izan zen bolada batetan... Baita emakume kantari asko ere, noski. Billie Holiday, Ella Fitzgerald, Nina Simone, Janis Joplin, Joni Mitchell, Ellis Regina... Eta Tom Waits ere bai. Mikel Laboa eta Ruper Ordorika ere entzun ditut asko, Itoiz...». Josh Che-



Josh Cheatham eta Maite Larburu, Hernanin. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

atham Larbururen ahotsaz galdetuta... «Hitz egitean nabaritzen zaio jada tinbre berezia duela. Entzun nuen lehen alditik garbi izan nuen zerbait egin behar genuela. Oso tinbre berezia dauka, sakona. Ahotsa naturala eta polita da». Cheathamek Indiako musika tresna tradizional bat eta Japoniako shaku hachia ere jotzen du kantu banatan, eta Larburuk biolina beste batean.

### Nomada bizimodua

Dozena kantutik erdiak euskaraz egin ditu, bost ingelesez eta bat gaztelaniaz. Guztiak Larburuk berak idatzi ditu. Euskaraz kantatzea zaila egiten zaio. Ez hizkuntza menderatzen ez duelako, bai zik eta biluzik sentitzen delako maiz: «Euskararekin oso harreman intimoa daukat. Erdaretan gauza asko errazago esaten ditut euskaraz baino. Naizenarekin oso lotua dago euskara. Hizkuntza bakoitzean pertsona desberdinak gara pixka bat».

Amsterdamen dute bizilekua. Bizilagun dira, eta proiektuari *Neighbour* (bizilagun euskaraz) jarriko diote ziur aski. Baina nomada bizitza da haiena, alde batetik bestera dabilta etengabe. «Bidaian bizi gara etengabe. Beti etxetik kanpo, eta beti etxea faltan, eta etxean zaudenean ere, nekatuegi etxeokoz goza-

tzeko». Letretan ere ezinezkoen mundua agertzen da batik bat, egileak dionez. «Gai nagusietako bat da ezinezkoaren bilaketa hori. Horrek asko obsesionatzen nau. Maitasunaren gaia ere ezin da saihestu. Maitasunaren ezinezkotasunaren inguruan ari naiz batez ere, frustrazio horren inguruan; eta umore pixka bat ere badago...».

Kantuak grabaturik dauzka. Orain argitara ateratzea falta zaio. «Saiatuko naiz diskoetxeren batek kaleratu dezan diskoa, eta bestela neronek argitaratuko dut». Eta, aukera izanez gero, nomada bizitzari eutsiz Euskal Herrira etorriko dira berriz bera eta Josh Cheatham, kontzerturen bat edo beste ematera.

## Amilburu eta Otamendi pasatu dira hurrengo fasera Arabako Txapelketan

Llantenon eta Elosun jokatu dira bertsolari txapelketako lehen bi kanporaketak; beste hiru saio falta dira

Erredakzioa Gasteiz

Arabako Bertsolari Txapelketako kanporaketetan Asier Otamendi —157,5 punturekin— eta Paula Amilburu —158,5 punturekin— sailkatu ziren. Llantenon egin zen aurrena, Otamendik irabazi zuena. Harekin batera aritu ziren Xabi Igoa (147 puntu), Unai Mendibil (145,5 puntu), Orlando Arreitunandia (143,5 puntu), Irati Anda (142,5 puntu) eta Maria Iza (128 puntu). Larunbatean, Elosun, Amilburu izan zen garaile. Lehen aldia izan da txapelketara aurkeztu dena. Iñaki Viñaspre (156 puntu), Rikardo Gonzalez de Durana (154,5 puntu), Xabier Lopez de Santiago (134,5 puntu) Beito Martínez (131 puntu) eta Maialen Saez de Okariz ere (121,5 puntu) aritu ziren.

Otamendik eta Amilburuk lortu dute finalurrekoan sartzea. Gaintzekoek hurrengo kanporaketak jokatu zain egon beharko dute, puntuazioaren arabera nor klasifikatzen den jakiteko. Agurainen ostiralean izango da saioa, eta Jon Ruiz de Pinedok, Iker Olabarrietak, Andere Arriolabengok, Felipe Zelaietak, Ruben Sanchezek eta Ohiane Pereak egingo dute bertsoetan. Larunbateko saioa Laudion izango da. Jagoba Apaolaza, Iker Pastor, Beñat Oribe, Serapio Lopez, Izar Mendiguren eta Ander Solozabal izango dira bertan. Azkena igandean egingo da, Lantziegon, eta Manex Agirre, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi, Ainhoa Comas, Unai Bengoetxea eta Iñaki Tena bertsolariak parte hartuko dute, txapelketako lehen fasea bukatzeko.

Jose Maria Salaberria Kalea, 14  
20010 Donostia  
943464359 943469825  
www.catalinadeerausolhi.hezkuntza.net

**KATALIN ERAUSO**  
Ikastetxe Publikoa

**D eredia**

**Matrikula zabalik**  
Otsailaren 10a arte